




ONDARROAKO UDALA



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ohiko Udalbatzarra

Deialdia: Lehena


Eguna: 2012-03-22

Ordua: 19:30 -20:30


Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- MIREN ARGIA ITUARTE ARKOTXA
- RAKEL ELU BENGOETXEA
- JOSEBA ZABALETA ARRIZABALAGA
- TXOMIN ETXABURU SOLABARRIETA
- LEIRE BEITIA ANABITARTE
- IERA LARRINAGA GARALDE
- RICARDO MARIA BEITIA ITURRIZA
- .-OIER ESPILLA BENGOCHEA
- MIREN ARANZAZU BURGOA AGUIRREGOMEZCORTA



ONDARROAKO UDALA



-IBON ARANBARRI ETXABURU

-AITOR MARURI TXURRUKA

Ez bertaratuak justifikatuta:

-RICARDO GATZAGAETXEBERRIA BASTIDA

- FATIMA ANSOTEGI ELORDI.

Idazkaria: Garaine Ajuria Lasuen



ONDARROAKO UDALA



Jarraian, Alkateak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma badagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- Aurreko akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea.(2012/02/23)

Alkateak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek akten testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, akta bozkatu eta aho batez onetsi du.

2.- Dekretuen Kontu emana.

Galderarik egon ez denez, eta Udalbatzak sinatutako dekretuen berri izan duenez, hurrengo puntuarekin jarraitu du.


3.- Ondarroako Udalak Euskal Kostalde-Bizkaia Costa Vasca Elkartearen Bazkide izateari uzteko erabakia onartzea.

Alkate andreak hitza hartu du adierazteko 2006. urtetik elkarte honen bazkidea dela Ondarroako Udala. Jarraitu du esanez Ondarroako Udalak elkarte horri jarraipen handirik ez diola egin eta urteko kuota altua ez bada ere, bazkide izateari lagatzea proposatzen du Udalak etekin handirik ez diola atera ikusita.


Ikusita Udala behartuta dagoela eman beharreko zerbitzu publikoen maila jaitsi gabe gastuak murrizteko neurriak hartzera, eta, era horretara, aurrekontu-baliabideak orekatzera.

Kontuan hartuta helburu hori betetzeko ezinbestekoa den gastu batzuk murriztu egin behar direla.

Ikusita 2012ko aurrekontuan Euskal Kostalde Bizkaia Costa Vasca Elkartearentzat krediturik ez dela aurrikusi.



ONDARROAKO UDALA



Nola elkartearen estatutuaren 15. Artikuluan aurreikusita dagoen; *“Bazkidetasuna, edonolakoa, galtzearen kariak honakoak dira:b) Elkartearen Zuzendaritzako Batzari zuzendutako idazkiaren bitartez adierazitako norberaren gogoa.”*

Ikusita 2012ko martxoaren 22an Ogasun batzordeak akordio honen aldeko diktamena eman zuela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen bosgarren erabaki gehigarrian eta 22.2b) eta 43.3b) artikuluetan xedatutakoaren arabera,

Udalbatza Osoari erabaki hau hartzea proposatu zaio:

Lehena: Ondarroako Udalak Euskal Kostalde-Bizkaia Costa Vasca Elkartearen Bazkide izateari uzteko erabakia onartzea.

Bigarrena: Elkartearen Zuzendaritzako Batzari zuzendutako idazkiaren bitartez erabaki honen berri ematea.

Hirugarrena: Udal Kontu-hartzaileari akordio honen berri ematea.

Udalbatza-kideek **gehiengo osoz** onartu dute, eta botazioa honako hau izan da:


-Aldekoa: 9 Bilduko Udal Taldea.

- Abstentzio: 2 EAJ Udal Taldea

4.- Udal jarduerak egin edo zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak ezartzen duen ordenantza fiskalaren modifikazioaren hasierako onarpena.

Rakel Elu andreak hitza hartu du bilduma honen jatorria azaltzeko; martxoaren 8ko dataren egitarauaren barne liburuxka batzuk argitaratu direla aditzera eman du.

Ikusita Ondarroako Udal Berdintasun Sailak hurrengo bildumaren argitalpena egin duela:



ONDARROAKO UDALA

- *“Emakumeen eta mugimendu feministaren oroimena Ondarroan, EUREN AZTARNEN BITARTEZ.*
- *“Ondarroako emakumeak herriko partaidetza politikoan eta sozialean: Emakumeen asoziazionismoaren eta mugimendu feministaren bilakaera eta horien eragina emakumeen boteretzean (1978-2006)”.*
- *“Itsasotik bizi. Ondarroako Emakumeen lana arrantza munduan”*

Erakunde ezberdinetatik zein indibidualki eta era pribatuan, bilduma eskuratu ahal izateko eskaerak jasotzen ari dira. Hau horrela, kopuru bat salgai jartzeko aukera baloratu da. Ale bakoitzaren argitalpenaren kostua 10€koa izanik, 15€tan salgai jartzea adostu da. Hau da, prezio publikoaren zenbatekoak Udalak egindako gastua estaltzen du (Ordenantzaren 3. Artikuluarekin bat eginez).

Ikusita 2012ko martxoaren 22an Ogasun batzordeak akordio honen aldeko diktamenta eman zuela

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen bosgarren erabaki gehigarrian eta 22.2d) eta 49. Artikuluen arabera artikuluan xedatutakoaren arabera,

Udalbatza Osoari erabaki hau **ahoko batez** onartzen du:


Lehena: Udal jarduerak egin edo zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak ezartzen duen ordenantza fiskalaren eranskinean honako aldaketa egitea, hain zuzen ere, berdintasun arloaren 4 epigrafean **«Bilduma»(3 liburu): 15,00 euro** atxikituz.

Bigarrena: Onetsitako hasierako akordioa jendaurrean erakusgai jartzea, erreklamazioetarako, hogeitamar eguneko epean, iragarkia Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuz, behin-behineko akordioa behin-betikotzat hartuz erreklamaziorik egongo ez balitz.

Hirugarrena: Behin-betiko akordioa, behin-behinekoa automatikoaki maila horretara igoa barne, eta aldaketaren testu osoa, Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratu beharko da.



ONDARROAKO UDALA



5.- Zaldupeko Udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeko araudiaren hasierako onarpena.

Arantza Burgoak hitza hartu du adierazteko beharrezkoa ikusten dutela Zaldupeko Udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeko araudi bat sortzea.

Ikusita, 2012ko martxoaren 20an Kirol Batzordeak Zaldupeko Udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeko araudiaren aldeko diktamena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen bosgarren erabaki gehigarrian eta 22.2d) artikuluan xedatutakoaren arabera,

Ikusita 2012ko martxoaren 22an Kirol batzordeak akordio honen aldeko diktamena eman zuela

Udalbatza Osoak erabaki hau **aho batez** onartzen du::


Lehena: Zaldupeko Udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeko araudiaren hasierako onarpena.

Bigarrena: Onetsitako hasierako akordioa jendaurrean erakusgai jartzea, erreklamazioetarako, hogeitamar eguneko epean, iragarkia Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuz, behin-behineko akordioa behin-betikotzat hartuz erreklamaziorik egongo ez balitz.

Hirugarrena: Behin-betiko akordioa, behin-behinekoa automatikoaki maila horretara igoa barne, eta aldaketaren testu osoa, Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratu beharko da.

6.- Bilduko Udal Taldea aurkeztutako mozioa.

Oier Espilla jaunak hitza hartu du Bilduko Udal Taldeak aurkeztutako mozioa irakurtzeko



ONDARROAKO UDALA



"ONDARROAKO UDALEKO MOZIOA

Lurraldearen antolamentua eta planifikazioa, gainean dugun ekonomia, ekologia eta energia izaerako krisiari aurre egiteko ezinbesteko tresna da. EAE-an lurralde antolamenturako legez dagoen instrumentua "Lurralde Antolamenturako Artezpideak" (LAA) dira, egun, berrikuspen fasean daudenak.

Lurraldearen Zatikako Planak (PTP) LAA-etan zehazturikoa garatzeko bitartekoak dira. Busturialdea eta Lea Artibairi, Gernika-Markina PTPa dagokio eta bertan definitzen da eskualde biotarako eredu sozioekonomikoa, etxebizitzak, azpiegiturak eta jarduera ekonomikoa.

Egun gutxi barru Euskadiko Aldizkari Ofizialean Elkarte Autonomo mailako LAA-n berrikuspenaren hasierako onarpena argiaratuko den une honetan, ez dauka zentzu askorik, haren garapena izan behar den plangintza hau (PTP-a) aldi berean abian jartzea, alde juridikotik goragoko mailan dauden LAA-n edukiak eta artezpideak ze norabide hartuko duten ez dakigunean oraindik. (Lurralde Antolamendurako 4/1990 Legearen 11 artikulua)

Gainera aurkeztutako PTParen dokumentuari ondoko gabeziak aurkitu dizkiogu:

-Diagnostikoko datuak eta estatistikak oso zaharkituta daude; lana eta langabeziaren datuak eta ume eskolarizatuen datuak 1996koak dira; populazioaren datuak 2001koak dira; etxebizitza beharraren inkesta 2000. urtekoa; nekazaritza eta abeltzantzako datuak 1999koak, e.a.

-Bizkaiko Foru Aldundiak metodologia "bertikala" erabili du, gabinetekoa. Ez da egon inkesta zuzenik bertako agente, eragile, erakunde eta abarrekin, aldiz, lurralde eremu berean eta Urdaibaiko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitaraua (PADAS) lantzen hasi zen garaian bilera sektorial osotarikoak egin ziren, zuzeneko datuak, inkestak, asmoak... bertako protagonistengandik zuzenean jasotzeko. Hori da guretzako oinarritik egoki hasitako gizarteratze prozesu aurrerakoi baten adibidea.


Urruntasunaren beste adierazgarrietako bat dokumentuaren idazle taldea Madrilgo gabinete bat izatea da, hemengo errealitatetik oso urrun dagoena.

- Horrez gain, LZP hau burutzeko ez da benetazko prozesu partehartzailerik abian jarri. Egin den bakarra Udalei informazioa eskaintzea izan da, norabide bakarreko inkomunikazio prozedura formalista baten bitartez.

- Azkenik, Busturialdea eta Lea-Artibai batzea area funtzional berean ez da lurralde estrategia bideragarria, ez baitago euren arteko jarduera funtzional askorik. Eskualde bakoitzak bere izaera du, eta bere LZP propioa beharko luke. Berrikusten ari diren LAA-ek eskaera hau jaso beharko lukete.



ONDARROAKO UDALA



Goian aipaturikoagatik, Ondarroako Udalak zera eskatzen du:

MOZIOA

1. Ondarroako Udalak eskatu egiten dio Bizkaiko Foru Aldundiari Gernika-Markina eskualde egituraren Lurralde Zatikako Plana hau bertan behera uztea goian aipatutako arrazoiengatik.
2. Bizkaiko Foru Aldundia Lurralde Zatikako Planaren inguruan eztabaida eta prozesu parte-hartzaile, publiko eta garden bat irekitzea premiatzen dugu. Hiru ardatz hauetan oinarritua:
 - 1.Lurraldearen diagnostiko erreala (datuen eguneraketa)
 - 2.Gaur egungo ekonomia, gizarte, ingurumen, eta kultura arloko erronken zehaztapena prozesu hausnartu eta lotesle baten bidez (gaikako bilerak eragile eta herritarrekin, gutxienez bost ardatz sektorialen inguruan: ingurumena eta iraunkortasuna, ekipamentuak eta zerbitzu publikoak, etxebizitza politika, mugikortasuna eta jarduera ekonomikoak (lehenengo, bigarren eta hirugarren sektoreak). Honetarako gutxienez, 7 hilabetetako parte-hartze prozesu bat eskatzen dugu.
 - 3.Adostutako oinarrien zehaztapena
3. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak bi LZP ezberdin egingo ditu, bata Busturialdean eta bestea Lea-Artibain, eskualde bakoitzak bere izaera eta berezitasunak izan baititu beti eta orain ere

Udalbatza-kideek **gehiengo osoz** onartu dute, eta botazioa honako hau izan da:

-Aldekoa: 9 Bilduko Udal Taldea.

-Kontra: 2 EAJ Udal Taldea"


Ibon Aranbarri jaunak hitza hartu du **erregu bat** egiteko gai honen inguruan; Lurraldearen ordenamendurako arauak, izaera publiko eta pribatuko jarduera sozial eta ekonomikoak, eta euskal lurraldeko tokien erabilera arautzen eta bideratzen dituzte.

Lurraldearen zatikako planetan bildutako lurralde ordenamendurako araudiak goragoko maila du; eta loteslea da, udal hirigintza planeamenduari begira.

Gernika-Markinako esparru funtzionalerako Lurraldearen Zatikako Plana, horretarako eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiak hasiera batean onartu zuen 2011ko abenduaren 27an, eta publikoa informatzeko aldian dago orain 2012ko maiatzaren 30era arte.



ONDARROAKO UDALA



Halaber, adierazi beharrekoa da Gernika-Markinako esparru funtzionala goragoko mailan dauden tresnek finkatzen dutela, hau da, Lurraldearen Ordenamendurako Arteztarauak.

Lurraldearen Zatikako Planak bere jarduera esparruan Ondarroa Udalerria sartzen duenez, ezinbestekoa da Udalak Plan horren eragina, hedadura eta edukia aztertzea, gai horren inguruko jarrera instituzionala finkatu baino lehen.

Horregatik guztiagatik, Udal Korporazioak informazio egokia eta behar adinakoa izan dezan, Alkatetzari eskatzen dio, Ibon Aranbarri jaunak, Korporazioko hirigintza saileko udal teknikariek aipatutako Lurralde Zatikako Planaren edukia eta ezaugarrien gaineko txostena egin dezaten eta, aldi berean, txosten horrek gure eremuan izan dezakeen edo izango duen eragin edo ondorioen azterketa.

7.- Ondarroako Ein Daigun Bidi Herri Bilguneak aurkeztutako mozioa.

Ein Daigun Bidi Herri Bilguneko ordezkariak mozio irakurtzen du:

“Espainiako Auzitegi Gorenak 2006ko otsailaren 20an ebatzitako sententzia da 197/2006 deritzona.


Ebazpen horren ondorioz, 1973ko Zigor Kodearekin zigortutako presoek kasuan, espetxeonurak edo erredentzioak espetxe-zigor bakoitzari aplikatzen zaizkio, eta ez guztira bete eharko liratekeen gehieneko 30 urteko kopuruari, ordura arte egiten zen bezala. Lege hau kondena beteta eta etxean dauden preso ohiei ere aplikatzen zaie.

Kontutan izanda, sententzia hau euskal preso politikoek kasuan era arbitrario batetan aplikatzen dela eta bizi osoko zigorraren adierazle nagusi bihurtua dela, Ondarroako Ein Daigun Bide herri bilguneak zera eskatzen du:

- *Ondarroako Udalarri bere konpromisoa eta eskura dauzkan baliabide guztiak erabiltzea, lege honen alboratze edo derogazioa eskatzeko, nahiz Espainiako Auzitegi Nazionalera zuzenduz,*



ONDARROAKO UDALA



nahiz Espainiako gobernuko Justizia Sailburua den Alberto Ruiz Gallardon-i zuzenean eskakizuna eginez.

- *197/2006 sententzia bertan behera uzteko Ein Daigun Bidi herri bilguneak martxan jarriko dituen ekimen desberdinetan Udalaren partehartzea eskatzen dugu.*
- *Apirilaren 20 eta 21ean Puerto de Santa Maria-ko espetxera egingo den bidaia aprobetxatuz, Ondarroako Udaleko ordezkari batek, espetxeko zuzendariarekin batzar bat eskatzea, 197/2006 sententzia bertan behera uzteko eskakizuna eskura emateko aprobetxatuz eta bere esku legokeen guztia gauzatzeko eskatuz.*
- *Orain aipatutako bidai hori gauzatzeko baliabide desberdinak luzatzeko eskaera egiten diogu udalari, hau da, autobusaren alokairuaren ordainketa oso edo partziala egitea adibidez.*
- *Udalaren erabakiaren berri komunikabide desberdinei jakinaraztea.”*

Ibon Aranbarri jaunak hitza hartu du EAJ udal Taldeak aurkeztutako mozio aldaketaren berri emateko;

“MOZIOA ALDATZEKO PROPOSAMENA

GAI ZERRENDAKO 7. PUNTUA


Zigorrak ezartzeko eta eskubideak murrizteko legeak ezin dira aplikatu indarrean sartu baino lehenagoko egintzetan. Era berean, Jurisprudentzia barruko zigor dotrina ezin da aplikatu lehenagotik ebatzitako gertakizunetan, atzera ezintasun printzipio juridikoa urratzen delako.

Auzitegi Gorenak 2006ko otsailaren 28an delituak egiteagatiko zigorrak metatzearen eta onura penitentziarioen inguruan eman zuen ebazpenak , jurisprudentziarako irizpide murriztailea ezarri zuen, konstituzio aurreko zigor lege zaharrearantz aurreikusitako arlo batzuen interpretazio eta aplikazioaren inguruan.

Aipatu ebazpen judizialak gehien zigortzen eta hiritarren eskubideak gehien murrizten dituzten arau eta ebazpenen atzeraezintasun printzipioa betetzen ez duela kontuan hartuta.



ONDARROAKO UDALA



Gai hau, gaur egun Auzitegi Konstituzionala aztertzen ari den gaia dela kontuan hartuta.

Ondarroako Udalak Auzitegi Konstituzionalari eskatzen dio, 2006ko otsailaren 28an Auzitegi Gorenak emandako ebazpen barruan dagoen dotrina atzeraeraginezkoa eta eskubide murriztailea baliogabetzea.

Ondarroa, 2012ko martxoaren 22a

ONDARROAKO EAJren UDAL TALDEAREN IZENEAN

Ibon Aranbarri Etxaburu

Ondarroako Ein Daigun Bidi Herri Bilguneak aurkeztutako Mozioa **gehiengo osoz** onartu da, eta botazioa honako hau izan da:

- Alde: 9 Bilduko Udal Taldea.
- Abstentzio: 2 EAJ Udal Taldea

Jarraian, EAJ Udal Taldeak aurkeztutako mozio aldaketa **bertan behera** geratzen da, eta botazioa honako hau izan da:

- Kontra: 9 Bilduko Udal Taldea.
- Alde: 2 EAJ Udal Taldea

8.- Eskakerak eta galderak.

Udalbatza kideek eskaerarik eta galderik ez dutenez, osoko bilkura amaitutzat eman dut alkatearen oniritziarekin, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

IDAZKARIA

